



## **IRUÑEKO UDALEKO MUSIKA-TALDE GAZTEEN POLTSAN SARTZEKO ETA HURA KUDEATZEKO JARDUKETA-IRIZPIDEAK**

### **1. Xedea**

Agiri honek xede dauka musika-talde gazteen poltsa kudeatzeko baldintzak arautzea, hiriko gazteen musika-bandak sustatzeko eta aukerak eskaintzeko asmoz kontzertuak egin ditzaten Iruñeko elkarte nahiz kolektiboek antolatutako hainbat gunetan eta udal-programazioaren barruan.

### **2. “Poltsan” sartu nahi duten talde edo bakarlarrien betekizunak**

- 1) Musika-talde bateko kideen erdiek, gutxienez, eta, bakarlarrien kasuan, bakarlariak berak, Iruñean bizi eta erroldaturik egon behar dute izena emateko datan (Udal Erroldak egiaztatuko du hala dela). Erroldaturik ez dauden pertsonen kasuan, bizitegia egiaztatuko da errentamendu-kontratua aurkeztuta. Pertsona bat talde batean baino gehiagotan egon daiteke. Taldekide berak dituen talde bat ezin izanen da izen ezberdinekin aurkeztu.
- 2) Taldekideen bi herenek, gutxienez, 14 eta 30 urte artean (biak barne) izan beharko dituzte.
- 3) Ez da onartuko diskoetxe batekin kontratu bat indarrean duten talderik edo bakarlaririk. Aldiz, onartuko dira finantzaketa propioaren bidez diskoak argitaratu dituzten taldeak.

### **3. Poltsako taldeak eskatuta, emanaldiek bete beharreko betekizunak**

- 1) Elkarbizitza, askatasuna eta sormena sustatzea eta irabazi-asmorik gabeko entitateek edo musika-sustatzaileek antolatuak izatea, betiere Gazteria Unitateko teknikariek kasu bakoitzean baloratuta taldeak parte hartzea egokia den.
- 2) Iruñeko biztanle orori irekiak izatea. Emanaldietara joaten den publikoaren artean ez dute, inolaz ere, inor bazter utziko -ez banako ez talde-.
- 3) Iruñeko udalbarrutian egin behar dira.
- 4) Sarturik ez egotea Iruñeko Udalak finantzatzen dituen bestelako programetan.
- 5) Taldearen emanaldia eskatu den urte berean egitea.
- 6) Kolektibo, elkarte edo entitate eskatzaile bakoitzak gehienez ere emanaldi bat egiten ahalko du urtean.
- 7) Ekitaldia edo kontzertua antolatzen lagundu edo antolatu duten entitateek Iruñeko Udala salbuesten dute plagiotik edo jabetza intelektualaren arloan indarrean den araudia nolabait urratzeagatik eratorritako edozein arduraz, entitateok arduradun bakarrak izanen baitira. Horretarako, atxikitako agiria (IV. eranskina) beteko dute.



#### **4. Eskaerak aurkezteko tokia eta epea, aurkeztu beharreko agiriak eta erantzunak eskaerei**

##### *A) "Taldeen poltsan" sartzeko jarraibideak:*

Poltsa honetan sartu nahi duten taldeek edo bakarlariek Gaztediaren Etxearen bitartez (Zangoza k. 30, 948 233 512) egin beharko dute eskaria, izena emateko fitxa (I. eranskina) beteta.

Halaber, audio bat erantsi beharko dute formatu digitalean (gehenez ere 3 abesti edo 10 minutu). Onargarriak dira bai jatorrizko kanten grabazioak bai beste taldeen jatorrizko kanten bertsioenak, betiere konposizioaren eta interpretazioaren jatorria adierazten bada. Urte osoan zehar egonen da zabalik taldeen poltsan sartzeko eskaerak aurkezteko epea.

##### *B) Taldeen poltsako talde edo bakarlari baten emanaldia eskatzeko jarraibideak*

Hala eskatzen duten elkarte, herritar-kolektibo zein musika-sustatzaileek poltsako taldeen jardunarekin kontaktzen ahal dute beren programazioen barruan emanaldiak eskaintzeko. Udalaren programazioan ere kontuan hartuko dira talde horiek. Taldeen ikuskizunak eskatzeko, emanaldietarako eskabide bat (II. eranskina) bete beharko da, eta Iruñeko Gaztediaren Etxera igorri, emanaldia noizko aurreikusi eta gutxienez hilabeteko epean.

Talde edo bakarlari berri batek taldeen poltsan izena eman eta gero, hori hamabost egun naturaleko epean emanen da jakitera.

Elkarte edo musika-sustatzaile batek emanaldi bat eskatuz gero, epe berberak bete beharko dituzte eta emanaldia zein ordainketa eskaera aurkeztutako urte berean eginen dira.

#### **5. Parteen betebeharrak**

##### *Talde edo pertsona onuradunaren betebeharrak*

- Eskatutako emanaldia gauzatzea, salbu eta hori ez egiteko arrazoi justifikaturik badago.
- Gazteria Unitateari jakitera ematea poltsako partaide izateko baldintzak betetzeari uzteak berekin dakarren edozein inguruabar edo aldaketa.

##### *Elkarte, musika-sustatzaile edo bestelako entitate eskatzaileen betebeharrak*

- Emanaldia kudeatzea eta musika-taldearen eskura jartzea jarduera egiteko behar duen guztia, horren gaineko balorazioa eta balioespena egin ondoren.
- Komunikazio arina edukitzea Gazteria Unitatearekin, hitzartutako emanaldia egin baino lehen eta ondoren.
- Gazteria Unitateak estaltzen ez dituen gastu teknikoan gainerako fakturak ordaintzea.

##### *Iruñeko Udaleko Gazteria Unitatearen betebeharrak*

- Taldeen zerrenda eta erabilera-baldintzak hedatzea elkarteetan, kultur entitateetan eta besteren artean, haien sustapenerako.
- Eskatzaileen eta musika-taldeen arteko kontaktua kudeatzea.



- Jarduera hitzartutako egunean egiten dela egiaztatzea.
- Taldeei eta emanaldien eskatzaileei dagozkien ordainketak egitea.
- Urtean kontzertu bat antolatzea (Musika Martxan jaialdia), eta poltsako taldeak horretara gonbidatzea. Zehazteke daude kontzertuaren data, lekua eta baldintzak.

## **6. Diru-zenbatekoa**

Gazteria Unitateak 300 euro ordainduko dizkio emanaldi bakoitzeko taldeari edo bakarlariari, kontzertua prestatu eta emateagatik. Talde bakoitzak gehienez bi emanaldi emanen ditu urtean.

Horretaz gain, Udalak gehienez 700 euroren ordainketa hartuko du bere gain emanaldi bakoitzeko soinu-instalazioa egiteko eta behar teknikoak asetzeko, ekitaldi bakoitzaren xehetasunetara doituta eta merkatuaren prezioekin bat. Faktura hornitzaileek (soinu-entresa edo beste) zuzenean jaulkiko dute, eta horren kopuru zehatza ekipo berarekin jo behar duten talde-kopuruaren arabera zehaztuko da. Eskaera emanaldi bakar baterako egin bada, ordainketa osoa egingen da; aldiz, emanaldi berean talde batzuk arituz gero, proportzionalki ordainduko da, jo duten talde-kopuruaren arabera, betiere 700 euroko gehieneko mugarekin.

Zenbateko guztiak BEZa barne dira.

Ordainketa dagozkion fakturak aurkeztu eta gero egingen da, eta horiek formatu digitalekoak izan beharko dute pertsona juridikoen kasuan.

### **Eranskinak:**

- I. eranskina. Izena emateko fitxa, talde edo bakarlari eskatzaileak bete beharrekoa.
- II. eranskina. Talde edo bakarlari baten emanaldia eskatzeko eskabidea.
- III. eranskina. Dagokion urtean eskuragarri dauden taldeen zerrenda. Agiria gutxienez urtean behin berrituko da, sartu berri diren taldeak gehituta.
- IV. eranskina. Egile-eskubideen fitxa.



## I. ERANSKINA

### MUSIKA-TALDE GAZTEEN POLTSA. IZENA EMATEKO FITXA

#### TALDEAREN DATUAK

Taldearen edo bakarlariaren izena/ \_\_\_\_\_

Estiloa \_\_\_\_\_

#### HARREMANETARAKO PERTSONA

Izen-abizenak:

|                      |                   |       |  |
|----------------------|-------------------|-------|--|
| Jaioteguna           | ...../...../..... | NAN   |  |
| Helbidea             |                   |       |  |
| Herria               | PK                | Tel.: |  |
| Helbide elektronikoa |                   |       |  |

#### TALDEKIDEAK

|                      |                   |       |  |
|----------------------|-------------------|-------|--|
| Izen-abizenak        |                   |       |  |
| Jaioteguna           | ...../...../..... | NAN   |  |
| Herria               |                   | Tel.: |  |
| Helbide elektronikoa |                   |       |  |
| Instrumentua         |                   |       |  |

|                      |                   |       |  |
|----------------------|-------------------|-------|--|
| Izen-abizenak        |                   |       |  |
| Jaioteguna           | ...../...../..... | NAN   |  |
| Herria               |                   | Tel.: |  |
| Helbide elektronikoa |                   |       |  |
| Instrumentua         |                   |       |  |

|                      |                   |       |  |
|----------------------|-------------------|-------|--|
| Izen-abizenak        |                   |       |  |
| Jaioteguna           | ...../...../..... | NAN   |  |
| Herria               |                   | Tel.: |  |
| Helbide elektronikoa |                   |       |  |
| Instrumentua         |                   |       |  |



|                             |                   |              |  |
|-----------------------------|-------------------|--------------|--|
| <b>Izen-abizenak</b>        |                   |              |  |
| <b>Jaioteguna</b>           | ...../...../..... | <b>NAN</b>   |  |
| <b>Herria</b>               |                   | <b>Tel.:</b> |  |
| <b>Helbide elektronikoa</b> |                   |              |  |
| <b>Instrumentua</b>         |                   |              |  |

|                                       |  |
|---------------------------------------|--|
| Sakatu laukitxo bat edo biak          |  |
| <b>Jatorrizko kanta jotzen ditugu</b> |  |
| <b>Bertsioak jotzen ditugu</b>        |  |

### BIOGRAFIA LABURRA

(Agiri bat entregatu daiteke, bai paperean bai formatu digitalean)

Sartu behar da: **SARE SOZIALETAKO PROFILA** eta **TALDE/BAKARLARIAREN ARGAZKIA** edo **IRUDIA (JPG)**

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---


---

**DATUEN BABESA:** Iruñeko Udala da arduradun botere publikoez baliatuz dirulaguntza kudeatzeko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira–, horiek ezabatze eta bestelako eskubideak gauzatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu–zerrenda eta informazio osagarria [www.pamplona.es](http://www.pamplona.es) webgunean kontsultatu ditzakezu.



**II. ERANSKINA**  
**GAZTERIA UNITATEKO POLTSAKO MUSIKA TALDE EDO BAKARLARIEN JARDUKETA**  
**ESKAERA. IRUÑEKO UDALA**

ESKAERA ZK:

| EZKATZAILEAREN DATUAK  |                  |
|--|------------------|
| <b>Izen-deiturak:</b>  | <b>NAN:</b>      |
| <b>Noren izenean:</b>  | <b>IFK:</b>      |
| <b>Udalerrria:</b>   | <b>Helbidea:</b> |
|  <b>:</b> | <b>Email:</b>    |

| ESKATZEN DEN TALDEAREN DATUAK |              |              |
|-------------------------------|--------------|--------------|
| <b>Taldea</b>                 | <b>Eguna</b> | <b>Ordua</b> |
|                               |              |              |
|                               |              |              |
|                               |              |              |
|                               |              |              |
|                               |              |              |

**Zein programatarako:**

**Emanaldiaren tokia: (dirección)**

Iruñean, 202\_ \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_(e) an

Sinadura eta Zigilua